

# Alarguntzari aurre eginez

Badira bizpahiru urte Ermuko alargunek elkartzea erabaki zutela, denon artean eguneroko kezka eta arazoei aurre egiteko. Harez geroztik, biltzeaz gain hainbat ekintza burutu dituzte, eta egun hauetarako antolatu dituzten ekitaldien bitartez ermuar guztioi ezagutera eman dira.

Une honetan 175 emakume alargunek osatzen dute elkarte, eta galdetzen diegunean zergatik duten

## "Bakardadearen aurkako borroka izan da gu elkartzearen ardatza"

elkartzeko beharra, erantzuna bizkor datorkie ahora, "senarra bizi zen artean gure bizimodua haren eta familiaren inguruan zebilen. Ez genuen koadrilarik, beti senarrarekin toki guztietara. Hura hiltzerakoan galduta sentitu gara, zer egin jakin gabe, nora ezean eta, batez ere, bakarrik. Depresioak alarguna ito egiten du. Bakardadearen aurkako

borroka izan da gu elkartzearen ardatza".

Bakardadea aipatzen dute behin eta berriz, "bakarrik eta babesik gabe. Gizon alargunak soldataren %100a jasotzen

badu, emakume alargunari %45a baino ez zaio geratzen. Gau egunean asko interina lanak egin beharrean daude familia aurrera ateratzeko". Diskriminazio horren kontra



Elkarteko zenbait kide.

SANTOS VEGA

joateko ere elkartu egin behar. Injustizia oso nabarmena da.

Dituzten estatutoetan argi agertzen dira haien nahiak: Pertsonaren balioaren aurkikuntza eta garapena; aisiaren, kulturaren eta abarren beharren ikerketa; eta batez ere babes, laguntza eta hurbiltasuna. Horretarako hitzaldiz, kurtsoz, ibilaldiz... baliatuz, bakardadearengandik ihes eginez lagun berriak egin. Zoriontsu izan berriz ere.

Galdetzerakoan zergatik emakumezkoak soilik, zera esaten dute: "Ez dago arrazoi garbirik, Ermuan emakume alargunak asko ata asko gara, gizonezkoak berriz oso oso gutxi. Ez da diskriminaziorik egin, funtsean behintzat, halaxe gertatu da; beste hainbat herritan gizon eta emakumeek osatzen dute alargun elkarteak".

Elkartzearen bitartez alarguna den emakumearen bizimodua zabaldu egin da. Bizitzari zentzu berri bat emanez pertsona aberastu egiten da.

Mikel Yarza

**ZARAUZTARRA  
JATETXEA**

LEHEN, ORAIN  
ETA BETI

- Zapua
- Txuleta
- Bildotsa
- burduntzian
- Laranja flana



**DROGERIA - OPARIAK  
SOLOZABAL**

Ia 50 urte zuekin

Cardenal Orbe plazan

17 00 52 telefonoa

ERMUA

**MIGUEL  
Harategia**



PROBALEKU, 3

☎ (943) 17 05 63 Harategia

☎ (943) 17 29 03 Etxea

48260 -ERMUA  
(Bizkaia)